



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

PRENTSA-OHARRA

BURDINOLEN IBILBIDEAK BARBADUN ERREKAREN ONDARE EZKUTUA ERAKUTSIKO DAU URRIAREN 31N

- Enkarterrietako Museoak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek “Barbadun errekaen arroko burdinolen, erroten eta torreen ibilbidearen” XIII. edizinoa antolatu dabe, industria-iraultzari eta Enkarterri zeharkatzen dauen errekaen arroari lotutako olagizonen aztarnak balioan jarteko.
- 22 kilometroko ibilbideak Museoko beharginen azalpen zehatzak eta anoa gune bi izango ditu.
- Izen-emotea dobakoa da eta www.enkarterrimuseoa.eus helbidean egin daiteke.

(Abellanedan, 2021eko urriaren 13an). Urriaren 31n, domekan, “**Barbadun ibaiaren arroko burdinola, errota eta torreen ibilbidearen**” XIII. edizinoa egingo da. Ibilbide hori Enkarterrietako Museoak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatzen dabe. Ibilbidea kultur ibilbide moduan hartzen da, eta ondare ezezagun samar bati balioa emon gura deutso, XV. mendetik aurrera Barbadun errekaen ertzetan eta haren adarretan eregi ziran burdinolei, hain zuzen be.

Kultur ibilbideen proiektu hori 2008an sortu zan, “Enkarterriko burdinolak. Ondare kontserbua” erakusketaren inaugurazioagaz, eta Enkarterrietako Museoak eta El Pobal burdinolak egindako ikerketa-proiektu baten emaitzea da. Proiektu honen bidez, Enkarterri inguruko burdinolen ondare-aztarnak aztertu gura ziran.

Ikerketak ondorioztatu eban Barbadunen arroan gitxienez hamabost bat burdinolaren arrastoak kontserbetan zirala, gehienak egoera eskasean. Ahanztura horren kontra burrukatzeko, aitatutako erakusketea diseinatu, liburu bat argitaratu eta hainbat jarduera egin ziran, besteak beste, naturaz gozatzeko, kirola egiteko eta Barbadungo kultur ondare aberatsa ezagutzeko pentsautako “Burdinolen ibilbidea”.

XIII. EDIZINOAREN BARRIKUNTZAK

Edizino honetan, ibilbidearen alderdi kulturala eta historikoa indartzearen aldeko apustua egingo da. Hori dala eta, urteera masibo bat egitea saihestuko da, eta taldetan banatutako urteera mailakatu bat aukeratuko da. Urteera hori Muskizko San Juan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



plazatik abiatuko da, 8:30etik 9:30era bitartean. Talde bakotxak museoko gidari bat izango dau, 22 kilometroko ibilbidearen lehen erdian burdingintzagaz eta haren ondareagaz lotutako euki nagusiak modu didaktikoan azaltzeko.

Geldialdirik garrantzitsuena El Pobal burdinolan egingo da. Partaideek, www.enkarterrimuseoa.eus webgunean **online doban izena emon** ostean, ondoen kontserbautako Bizkaiko burdinola ikusi ahal izango dabe. Ibilbideak beste gune interesgarri batzuk be izango ditu Barbadunen arroko burdinola eta errota izandakoen artean: Bado Ondero, Los Vados, Billotxi, La Olla, Valdivián edo Burdinazko mendietako Bide Berdea.

Ibilbideak anoa gune bi izango ditu: bata Santiago baseleizan, Loizaga torrearen ondoan, eta bestea ibilbidearen amaieran, Enkarterrietako Museoan/Abellanedako Batzar Etxean. Bertatik, autobus batek partaideak abiapuntura eroango ditu barriro.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 Enkarterrietako Museoa

NOTA DE PRENSA

LA RUTA DE LAS FERRERÍAS MOSTRARÁ EL 31 DE OCTUBRE LA RIQUEZA PATRIMONIAL ESCONDIDA DEL RÍO BARBADÚN

- El Museo de Las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia organizan la XIII edición de la “Ruta de ferrerías, molinos y torres de la cuenca del río Barbadún” para poner en valor los vestigios ferrones ligados a la revolución industrial y a la cuenca fluvial que atraviesa Enkarterri.
- El itinerario de 22 kilómetros contará con explicaciones detalladas de personal del Museo y dos avituallamientos.
- La inscripción es gratuita y se puede hacer ya en www.enkarterrimuseoa.eus

(Abellaneda, a 13 de octubre de 2021). El domingo 31 de octubre se celebrará la XIII edición de la “**Ruta de ferrerías, molinos y torres de la cuenca del río Barbadún**” que organiza el Museo de Las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia. Esta ruta, conceptualizada como un evento de senderismo cultural, pretende poner en valor un patrimonio un tanto desconocido, el de las ferrerías que se construyeron a partir del siglo XV en las orillas del Barbadún y sus afluentes.

Este proyecto de senderismo cultural fue ideado en 2008 con la inauguración de la exposición “Ferrerías de Las Encartaciones. Patrimonio conservado”, fruto de un proyecto de investigación llevado a cabo por el Museo de Las Encartaciones y la Ferrería de El Pobal. Mediante este proyecto se pretendía estudiar los restos patrimoniales de ferrerías del entorno de Las Encartaciones.

El estudio concluyó que al menos se conservaban en la cuenca del Barbadún restos de una quincena de ferrerías, la mayoría en un estado precario. Para luchar contra este olvido se diseñó la exposición citada, se editó un libro y se realizaron diversas actividades entre las que destacaba la “Ruta de ferrerías”, un itinerario pensado para disfrutar de la naturaleza, hacer deporte y conocer el rico patrimonio cultural del Barbadún.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



NOVEDADES DE LA XIII EDICIÓN

En esta edición, se apostará por reforzar el aspecto cultural e histórico del itinerario. Por ello se evitará hacer una salida masiva, optando por un recorrido a pie escalonado dividido en grupos, que partirán de la plaza San Juan (Muskiz) entre las 8:30 y las 9:30 horas. Cada grupo irán acompañado con personal del museo que explicará de manera didáctica los principales contenidos relacionados con la industria ferrona y su patrimonio durante la primera mitad de un recorrido total de 22 kilómetros.

La parada más relevante se realizará en la ferrería de El Pobal donde quienes participen previa **inscripción gratuita online** en www.enkarterrimuseoa.eus podrán contemplar la que es considerada como la ferrería de Bizkaia mejor conservada. El itinerario tendrá otros puntos de interés en restos de ferrerías y molinos de la cuenca del Barbadún: Bado Ondero, Los Vados, Billotxi, La Olla, Valdivián o la Vía Verde de los montes de Hierro.

El recorrido contará con dos avituallamientos: uno en la ermita de Santiago, junto a la Torre Loizaga, y otro al final de la ruta, en el Museo de Las Encartaciones/Casa de Juntas de Abellaneda. Desde aquí, un autobús devolverá a los participantes al punto de partida.